



❖ HERNANI ERROTZEN 'Eta 1332an Hernani erre zuten' hitzaldia

Txuso Gomez Udal Artxibategiko arduradunak hitzaldia emango du gaur 19:30etan Biterin: *Eta 1332an Hernani erre zuten.* ||

❖ KIROLDEGIA

Frontoia itxita, obrak direla eta

Frontoia pintatu egingo dute eta sabaian sarea jarri. Gaur hasiko dira lan horiek egiten eta hiru aste inguruz itxita egongo da. Urtarrilaren 5ean irekitzea espero da. ||

❖ ERREPIDE MOZKETA

Gauetan karril bakarra bariantean

Bariantean egiten ari diren zabaltze lanen ondorioz, karril bat itxiko dute gauero 21:00etatik 06:00etara. Asteazken gaua izango da azken eguna. Bihar gauean berriz, guztiz itxiko dute Mandazubi eta Hernani erdigunea lotuneen arteko zatia, eta Martindegiko lotunetik Hernaniko irteerako zatia. ||

❖ DAITEKE

Nola bilatu lana internetez?

Daiteke zerbitzuan tailerra emango dute asteazkenean, lana internetez bilatzen ikasteko. Izena emateko: 688 875 346 edo jaioea@daiteke.com. ||

❖ KUTXA EKO GUNEA

Informazio saioak

Eko gunean baratza bat jarri nahi dutenentzat informazio saioak izango dira gaurtik asteazkenean. ||

❖ HIRIGINTZA

6 puntu, aztergai

Hirigintza eta Ingurumen Bartzordea izango da gaur 18:30etan udaletxeko 1go bilera gelan (4. pisua). 6 puntu izango dituzte aztergai; besteak beste, lizentzia eskaerak. ||

BERRIAK ELKARTEA ETA KRONIKA - GABONETAKO ZOZKETA 2012

Bost saski eta 60 oparitik gora, aurtengo zozketan

Aurten, lehenengo aldiz, bost saski zozketatuko dira. Lau saskitan 15na sari izango dira gutxienez, eta saski bat berezia izango da: gau bateko egonaldia, mariskada, spa... Zozketa, ostegunean.

AURTENGO Gabonetako Zozketan inoiz baino opari gehiago bildu dituzte Berriak elkarteak eta Kronikak eta lehenengo aldiz, bost saski zozketatuko dira. Lau saski 15na sari izango dituzte gutxienez, eta saski bat berezia izango da: hiru izarreko

hotel batean bi pertsonentzako gau bateko egonaldia, mariskada, gosaria, spa eta maleta bat.

Errifak, euroaren truke

Bost saskien zozketa ostegunean egingo da Biterin, 12:00etan eta oraindik bada

aukera errifak erosteko. Salgai daude euro batean Berriakeko establezimenduetan eta Kronika banatzen den puntuetan.

Berriak elkarteko merkatarien opariak

Saski guztiak batuz, 60 sari-

tik gora daude. Guztiak, Berriak elkarteko merkataria eta ostalariek jarritakoak dira: liburuak, afariak, gosariak, langostinoak, ganbak, xapoa, urdaiazpikoa, olioak, fruta saskia, arropa, ardo botilak, kafetera, errege rosakoak, turroiak, prismatikoak... ||

PEÑA MUJIKA ETA ANBOTO TABERNA - MIKEL ARANBURURI OMENALDIA

«Merezi baino omenaldi gehiago ari naiz jasotzen eta bihotzez eskertzen dizuet»

Larunbat gauean egin zioten omenaldia Realeko jokalaria ohiari, Atsegindegin, MCD taldearen kontzertuaren aurretik. Peña Mujikako kideek, eurek sinatutako Realeko kamiseta eman zioten.

MIKEL, Mikel, Mikel Aranburu! oiheri artean hartu zuten Mikel Aranburu Realeko jokalaria ohiari Peña Mujikako kideek eta adin ezberdinetako realzaileek. Larunbat gauean izan zen hori, Atsegindegin. Peña Mujikak eta Anboto tabernak omenaldia egin zioten eta bihotzez eskertu zuen kapitain ohiari: «Merezi baino omenaldi gehiago ari naiz jasotzen eta bihotzez eskertzen dizuet. Mujika taldekoak eta ingurukoak beti aritu zarete Reala animatzen eta espero dut urte askoan segitzea».

Peña Mujikako kideek, eurek sinatutako Realeko kamiseta oparitu zioten Aranbururi. Aureskua eta bertso bat ere eskaini zizkieten, mezu honekin bukatuz: «zu beti izango zara guretzako kapitaina».

Omenaldiaz gain, lau kontzertu antolatu zituzten eta errematea, MCD taldeak eman zion festari. ||



Bengala bat piztuz, «Peña Mujikaren erara» ospatu zuen Aranburuk omenaldia.

Hernanik kronika Egin zure erosketak Hernanin! **HERNANI BIZIRIK!**

GABONETAKO ZOZKETA 2012 Prezioa **1€**

BERRIAK-EKO MERKATARI ETA OSTALARIEK JARRITAKO SARI EZBERDINAK: JAKIAK, JANTZIAK, AFARIAK...

ERRIFAK SALGAI 1 €-AN BERRIAK-EKO ESTABLEZIMENDUETAN ETA HERNANIKO KRONIKAKO BANAKETA PUNTUETAN

Zozketa abenduaren 20an, Biteri kultur etxean **AZKEN ERRIFAK SALGAI!!**

JOMERI

EDARITEGIA

Kale Nagusia, 7
55 00 32
HERNANI

MASUSTA EKODENDA

Elikagai Biologikoak (sariak eta irakurketa)
Senda Belarrak
Kosmetika Ekologikoa
Liburuak...

BRAIN GYM: IGASTEKO DABILINAK ETA POSTAERA ARAZOAK DITUZTEMEI LAGUNTZERD.
-MEDIKU NUTRISTAREN KONTSULTA
-TNDR. MASAJEA
-BIRMASAJEA, BIROL-MASAJEA, DIGITOPUNTURA
-POGA BLASEAR
-ZEN MEDITAZIOA
TERAPIETARAKO ESPAZIOA ALOKAGAI

KARDABERAZ, 43 - HERNANI
Tel.: 943 55 57 10



TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 ● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Etxebeste** Elcano 9 - 943 552087

EGURALDIA
GAUR Goizean tantaren bat bota dezake, baina arratsaldean ostarteak zabalduko dira. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da. Min.8° / Max.15°.
BIHAR Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. Arratsaldean lainotuago egongo da zerua. Haizeak hego-mendebaldetik joko du, indarrez tarteka. Min.6° / Max.17°.

GABON KANTEN JAIALDIA

Gabonetako hamahiru abesti, sei abesbatzen eskutik

Herriko abesbatzek Gabon kanten jaialdia eskainiko dute gaur San Joan Bataiatzailea parrokan. Emanaldia 20:00etan hasiko da.

GABONETARAKO astebete besterik ez da geratzen eta herria girotzen joateko Gabon kanten jaialdia antolatatu du Kantuz abesbatzak, urtero bezala. Herriko abesbatzak eta eskoletako talde guztiak elkartuko dira 20:00etatik aurrera, San Joan Bataiatzailea parrokan.

Denera, 6 abesbatzek hartuko dute parte eta Gabonetako 13 abesti entzuteko aukera izango da. Abesbatza bakoitzak bi Gabon kanta abestuko ditu eta bukatzeko, denek elkarrekin abesti bat kantatuko dute. Honakoak izango dira parte hartuko duten abesbatzak: Parrokia-koa, Goiz Eguzki, Inmakulada ikastetxea, Ozenki,

Musika Eskola eta Kantuz.

Jose txo Zubimendiri eskainia

Aurtengoa, 17garren edizioa da eta Kantuzek azaldu du, zendu berri den Jose txo Zubimendi koro-kideari eskaini nahi diotela, «bera izan baitzen, besteen artean, jaialdi honen aitzindarietako bat».

GIBELALDE LIZEAGAKO AUZO ELKARTEA

Santo Tomas, Olentzero Lehiaketa eta umeentzako zinea, datozen egunetan

Ostiralean, Santo Tomas eguna ospatuko dute Lizeaga auzoan. Txistorra jateko postua jarriko dute 18:30etatik 21:00etara.

LIZEAGA auzoan ekintza ugari antolatu ditu Gibelalde auzo elkarteak datozen egunetan. Hasteko, ostiralean, Santo Tomas eguna ospatuko dute. Txistorra jateko postua jarriko dute Laramendi kaleko 15garren zenbakiaren aurrean, hau da, Urumea ikastolaren azpian. Arratsaldean jarriko dute, 18:30etatik 21:00etara.

Olentzero itxurako panpinak sortzen
 Olentzero Lehiaketa ere antolatu dute eta igandean entregatu behar dira make-tak. Olentzero itxurako panpinik landuena egiten duenak saria jasoko du. Kontuan hartuko dituzte sormena eta birziklitzeko gaiak erabiltzea. Lanak 10:00etatik

11:00etara utzi behar dira elkartearen egoitzan (Laramendi, 11) eta 11:00etatik 13:00etara lan guztiak ikusteko aukera izango da.
 Horrez gain, abenduaren 26an eta urtarrilaren 3an umeentzako zinea emanaldiak izango dira 17:00etan, elkartearen egoitzan. Kojinen bat edo eramateko gomendatu dute.

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		ESKU PELOTA - Gipuzkoako Txapelketa	
Errejonel Oñ. M.	Hernani Tolosa	3-1	Sorotzok
Errejonel Igo Maila	Hernani-Hernani	5-1	Kaletrak
Indurain Eskola Uda	Hernani-Bat Uda	3-1	Indurain
Donostia Jabeak	Hernani-Hernani	6-0	Indurain
Kaletrak Uda	Donostia-Hernani	6-0	Indurain
Kaletrak Oñ. Emak.	Hernani-Zerua	2-1	Indurain
Kaletrak Igo maila	Hernani-Bat Uda	2-1	Indurain
Indurain Oñ. M.	Hernani-Tolosa	2-2	Kaletrak
Indurain Igo maila	Donostia-Auzoak-Hernani	6-0	Kaletrak
Indurain Tolosa	Hernani-Hernani	0-1	PALA - Emakumea Pilotari Txapelketa
Indurain Oñ. M.	Santo Tomas-Uda-Hernani	6-1	Ser. 1. maila
SASERIAK		Maratxak-Hernani/Argala-Hernani	
Sorotzok	Argala-Hernani-Tolosa-Lasa	48-55	30-22
Tolosa 2. urtea	Kale-Hernani-Hernani-Bat Uda	77-58	30-22
Kaletrak 2. urtea	Hernani-Auzoak-Zerua	51-50	30-22
Kaletrak Igo maila	Hernani-Auzoak-Oñ. Auzoak	61-35	30-28
Indurain, Nere, 2. urte	Bat Uda-Hernani	48-5	Urtarrilko Maila
Indurain, Nere, 2. urte	Oñ. Auzoak-Hernani	59-5	Ser. B. Gerta, Eskola, Tolosa
Indurain, Nere, Igo maila	Argala-Hernani	30-28	Indurain (guz 10) Eskola, Tolosa
ARTE FOTBOLA		Hernani-Nere-Jabeak	
Igo maila	Eskola-Hernani-Hernani	2-2	Indurain (guz 10) Eskola, Tolosa
ERREMOYAK		Hernani-Nere-Jabeak	
1. Partida	Maratxak-Hernani-Uda-Hernani	25-22	Indurain (guz 10) Eskola, Tolosa
Indurain Igo Maila	Hernani-Hernani-Hernani-Hernani	21-40	Indurain (guz 10) Eskola, Tolosa
Indurain Igo Maila	Hernani-Hernani-Hernani-Hernani	38-40	Indurain (guz 10) Eskola, Tolosa
4. Partida	Hernani-Hernani-Hernani-Hernani	20-10	Indurain (guz 10) Eskola, Tolosa

❖ ELIZA

Produktu bilketa, Martuteneko presoentzat

Martuteneko presoentzat hainbat produktu bilduko dituzte gaurtik hasita ostegunera bitarte, Parrokiko bulegoan (Izpizua 3). Gaur eta asteazkenean, 20:00etatik 21:00etara izango da aukera eta ostegunean 12:00etatik 13:00etara. Produktuak dira: barruko arropa, hortzetako pasta eta zepiloa, tabako gorria eta metxeroak, gutunazalak eta zigiluak, turroi biguina, pilak... ||

◆ ESKU PELOTA - GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Lazkanok ezin, Ilunperen aurka

Ander Lazkanok Gipuzkoako Txapelketako finalaurdenak jokatu zituen larunbatean Ilunperen aurka eta 0-2 galdu zuen. Ondo arituzen hernaniarra, baina Ilunpeko pelotaria, oso pelotari ona da, faboritoetako bat, eta ez zion aukerarik eman. ||

◆ PALA - EMAKUMEA PILOTARI TXAPELKETA

Arrieta eta Tijero, finalerdietan

Emakumea Pilotari finalerdietan jokatu dituzten bikoteak atzo erabaki ziren. Lehenengo mailan, Ariane Arrieta hernaniarra eta Ainhoa Garmendiak, Miren Goikoetxea eta Nagore Arozenaren aurka jokatu dute. Bigarren mailan, Garbiñe Tijero hernaniarra Dolo Errastirekin, Maria Arruti eta Naroa Beldarrainen aurka jokatu du. Eli Pagola finalean da eta Eneritz Perez ere bai. ||

◆ SASKIBALDIA

Garaipen garrantzitsua Astigarragaren aurka

Kostata, baina irabaztea lortu zuen Hernanik larunbatean, Astigarragaren aurka: 48-55. Garaipen garrantzitsua lortu zuten hernaniarrek, aurreko bost partiduetan galdu egin baitzituzten. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† FELIX IRAZUSTA JAUREGUI

JAUNA
 (Maria Pagolaren alarguna)
 Atzo hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Ione eta Javier Izaguirre, Maria Jesus(†) eta Jose Joaquin Garmendia; biloba: Xabi; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezteela **BIHAR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, **SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2012ko abenduaren 17an

Helbidea: Zikuñaga, 85 behea.
 OHARRA: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO EHOZKETA TANATORIOAN dago.

ESKERTZA

Alejandro Erdozia Mujika

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Alejandroren emazteak, seme-alabak eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiak eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiak ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2012ko abenduaren 17an

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri. Bizitzera sartzeko. Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com
ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindaren plaza, 4)